



Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen
argazkiak, **herriz herri**

Irun, 1960-2010

(Bigarren edizioa)

2016ko azaroa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizkidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen argazkiak,
herriz herri

Irun, 1960-2010

Bigarren edizioa

2016ko azaroa

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Aurkibidea

Aurkezpena. 6

Bizitzeko eskubidearen **urraketak**.

1. ETA eta ETAm-k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 9
 2. BVEk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 39
 3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 41
 4. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak. 43
-

Erabilitako iturri eta zerrendak. 45

Aurkezpena

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendaurrean aurkeztu zituen “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri (1960-2010)” izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerriri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

Erretratu bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrek eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, “Aitortutako biktimak” izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

Aitortutako biktima horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. “Aitortutako biktimak” izeneko gunean, lege baten babesean aitortpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitortpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuen; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzateke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerrri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutzat dagoen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrenean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsizat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebeharrak instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabekia hezur-mamitzen duten aurpegiaren erretratua duzu dokumentu hau.

Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

1. **ETA** eta **ETAm**-k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Melitón Manzanas González

Data: 1968/08/02.

Adina: 59 urte.

Non jaioa: Donostia (Gipuzkoa).

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gipuzkoako Brigada Politiko eta Sozialeko inspektore-buru. Kargua eta destinoa tartekatu zituen Irun eta Donostia artean, eta Informazio Brigadako buru izan zen azken horretan. Peritu ikasketak egin zituen.

Egilea: ETA (banaketa gertatu baino lehen).

Heriotza-lekua: Irungo bere Villa Arana etxeke atarian.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

2

José Humberto Fouz Escobero

Desagertu zeneko data: 1973/03/24.

Heriotza-lekua: Donibane Lohitzune (Lapurdi).

Adina: 28 urte.

Non jaioa: Coruña.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa). Maria Isabel arrebaren etxean bizi zen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Garraio-enpresa bateko interpretea. Europako zenbait herrialdetan lanean aritu zen eta hainbat hizkuntza zekizkien.

Egilea: Inork ez zuen bere gain hartu. Euskal errefuxiatuak aipatzen dira.

Prozedura: Ezezaguna. Badirudi borrokaldi bat egon zela lehenago. Desagertuta.

Datu gehigarriak: Bertsiorik zabalduenak borrokaldi bat aipatzen du, eta bukaeran hiru hildako egon zirela, baina ez zen izan aurrez planifikatutako atentatua. Gertaera hauetan Fernando Quiroga Veiga eta Jorge Juan Garcia Carneiro ere hil zituzten. ETak inoiz ez ditu bere gain hartu desagertze horiek. Nonbait, borrokaldi bat izan zuten ustezko euskal errefuxiatuekin Bidarteko "La Licorne" diskotekan (Lapurdi). Espainiako Barne Ministerioak ETaren biktima bezala errekonozitu ditu. Familien esanetan, Jorge Garciaren ezkondu aurreko agurra ari ziren ospatzen, handik hilabetera baitzen ezkontzekoa, eta diskoteka hartan galdu zen haien aztarna, poliziak zirelakoan nahasita. 2005/07/11ko *El Mundok* borrokaldi hartan ustez parte hartu zuten batzuen izenak ematen ditu. Coral Rodríguez-en esanetan –PSEko euskal legebiltzarkidea eta Humberto Fouzen iloba–, "iturri ofizialek ez zieten halakorik berretsi desagertuen familiei" (*Vidas Rotas*, 2010: 30). Frantses Poliziak panteoiren bat ireki zuen Biriatuko (Lapurdi) hilerrian, baina "hango aztarnak ez ziren hiru gazte galegoenak" (31. or.).

3

Fernando Quiroga Veiga

Desagertu zeneko data: 1973/03/24.

Heriotza-lekua: Donibane Lohitzune (Lapurdi).

Adina: 25 urte.

Non jaioa: Coruña.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Irungo aduana-agentziako langilea.

Egilea: Inork ez zuen bere gain hartu. Euskal errefuxiatuak aipatzen dira.

Prozedura: Ezezaguna. Badirudi borrokaldi bat egon zela lehenago. Desagertuta.

Datu gehigarriak: Bertsiorik zabalduenak borrokaldi bat aipatzen du, eta bukaeran hiru hildako egon zirela, baina ez zen izan aurrez planifikatutako atentatua. Gertaera hauetan José Humberto Fouz Escobedo eta Jorge Juan Garcia Carneiro ere hil zituzten. ETak inoiz ez ditu bere gain hartu desagertze horiek. Nonbait, borrokaldi bat izan zuten ustezko euskal errefuxiatuekin Bidarteko “La Licorne” diskotekan (Lapurdi). Espainiako Barne Ministerioak ETaren biktima bezala errekonozitu ditu. Familien esanetan, Jorge Garcíaaren ezkondu aurreko agurra ari ziren ospatzen, handik hilabetera baitzen ezkontzekoa, eta diskoteka hartan galdu zen haien aztarna, poliziak zirelakoan nahasita. 2005/07/11ko *El Mundok* borrokaldi hartan ustez parte hartu zuten batzuen izenak ematen ditu. Coral Rodríguez-en esanetan –PSEko euskal legebiltzarkidea eta Humberto Fouzen iloba–, “iturri ofizialek ez zieten halakorik berretsi desagertuen familiei” (*Vidas Rotas*, 2010: 30). Frantses Poliziak panteoiren bat ireki zuen Bariatuko (Lapurdi) hilerrian, baina “hango aztarnak ez ziren hiru gazte galegoenak” (31. or.).

4

Jorge Juan García Carneiro

Desagertu zeneko data: 1973/03/24.

Heriotza-lekua: Donibane Lohitzune (Lapurdi).

Adina: 23 urte.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Langabea. Lan bila joan zen Irunera. Ezkontzera zihoan eta ezkondu aurreko agurra ari ziren ospatzen.

Egilea: Inork ez zuen bere gain hartu. Euskal errefuxiatuak aipatzen dira.

Prozedura: Ezezaguna. Badirudi borrokaldi bat egon zela lehenago. Desagertuta.

Datu gehigarriak: Bertsiorik zabalduenak borrokaldi bat aipatzen du, eta bukaeran hiru hildako egon zirela, baina ez zen izan aurrez planifikatutako atentatua. Gertaera hauetan José Humberto Fouz Escobedo eta Fernando Quiroga Veiga ere hil zituzten. ETAK inoiz ez ditu bere gain hartu desagertze horiek. Nonbait, borrokaldi bat izan zuten ustezko euskal errefuxiatuekin Bidarteko “La Licorne” diskotekan (Lapurdi). Espainiako Barne Ministerioak ETAREN biktima bezala errekonozitu ditu. Familien esanetan, Jorge García-ren ezkondu aurreko agurra ari ziren ospatzen, handik hilabetera baitzen ezkontzekoa, eta diskoteka hartan galdu zen haien aztarna, poliziak zirelakoan nahasita. 2005/07/11ko *El Mundok* borrokaldi hartan ustez parte hartu zuten batzuen izenak ematen ditu. Coral Rodríguez-en esanetan –PSEko euskal legebiltzarkidea eta Humberto Fouzen iloba–, “iturri ofizialek ez zieten halakorik berretsi desagertuen familiei” (*Vidas Rotas*, 2010: 30). Frantses Poliziak panteoiren bat ireki zuen Biriaturko (Lapurdi) hilerrian, baina “hango aztarnak ez ziren hiru gazte galegoenak” (31. or.).

5

José María Díaz Fernández

Data: 1977/11/02.

Adina: 54 urte.

Non jaioa: Asturias.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Irungo Udaltzaingoko sarjentu. Hogeiren bat urte zeraman bertan.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo bere etxearen ondoan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

6

Julio Martínez Ezquerro

Data: 1977/12/16.

Adina: 45 urte.

Non jaioa: Logroño.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Irungo Udaleko zinegotzia. Frankoren Guardiako kide ohia. Prentsa-kiosko bat zeukan herrian.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Bere autoaren barruan, Irungo bere etxeko garajea.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua, bertatik bertara.

7

Jose Luis Legasa Ubiria

Data: 1978/11/02.

Adina: 50 urte.

Non jaioa: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Lau seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Kontratista. Garaje baten jabea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo obra batean zegoela egin zioten tiro.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Bere anaia, Migel Legasa, hanka batean jo zuen tiroetako batek. Jose Luis Legasari diru-estortsioa egin zioten. ETari ordaindu asmoz muga zeharkatu arren, polizia jakinari gainean jarri eta Frantziako poliziak Francisco Javier Aia Zulaika atxilotu zuen.

8

Alejandro Hernández Cuesta

Data: 1978/11/30.

Adina: 43 urte.

Non jaioa: Jerte (Cáceres).

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Zortzi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Administraritzako Lanbide Eskolako atezaina Irunen. Gaueko establezimendu baten jabea. Frankoren Guardiako kide ohia.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo Administraritzako Lanbide Eskolaren barruan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

9

Félix De Diego Martínez

Data: 1979/01/31.

Adina: 46 urte.

Non jaioa: Fuentecén (Burgos).

Bizilekua: Irungo Bentak (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bost seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila. Zerbitzu aktibotik kanpora zegoen, giltzurruneko minbizi batengatik eta trafiko-istripu baten ondorioz.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo Bentak auzoko Herrería taberna.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

10

Juan
Batista
García

Data: 1979/04/17.

Adina: 24 urte.

Non jaioa: Las Palmas Kanaria Handikoa.

Destinoa: Tolosako destakamentuko Trafikoko Taldea.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irun aldeko errepide ertz batean larri zaurituta zegoela kamioilari batek hartu eta ospitalera bidean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua. Bularrean tiro bat jota.

11

Héctor Abraham Muñoz Espinosa

Data: 1979/06/19.

Adina: 39 urte.

Non jaioa: Concepción (Txile).

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik. Frantziako herritar batekin zegoen ezkondata.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Bi zaharkin-dendatako jabea.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo Luis Mariano kaleko bere saltokian.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Behin baino gehiagotan jasoak zituen mehatxuak.

12

Luis Martos García

Data: 1980/04/16.

Adina: 29 urte.

Non jaioa: Kordoba.

Destinoa: Irungo muga-postua.

Seme-alabak: Seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo Santiago zubiko mugako kontrol-kabina bat, kamioilari bati dokumentazioa kontrolatzen ari zitzaiola.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Kabina berean zegoen beste agente bat ere hil zen: José Torralba López. Udalbatzak atentatua kondenatu zuen.

13

José
Torralba
López

Data: 1980/04/16

Adina: 23 urte.

Non jaioa: Armilla (Granada).

Destinoa: Irungo Zerga Espezialisten Postua.

Seme-alabak: Seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo Santiago zubiko mugako kontrol-kabina batean, kamioilari bati dokumentazioa kontrolatzen ari zitzaiola.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Kabina berean zegoen beste agente bat ere hil zen: Luis Martos García. Udalbatzak atentatua kondenatu egin zuen.

14

Jesus Maria Etxebeste Toledo

Data: 1980/08/28.

Adina: 46 urte.

Non jaioa: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ezkondua, ez zuen seme-alabarik.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Industria-ingeniarria. Sucesores de Echeandía Aduana Agentziako ahalduna.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Posta-tiroak jo zizkioten bere etxetik gertu, Irungo Berrotaran kalean.

Prozedura: Kanoiak ebakitako eskopeta batez egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Barne Ministerioak terrorismoaren biktimatzat hartzen du. Bala-zorrorik agertu ez zenez, "badirudi eskopetak erabili zirela" (*El Mundo*, 2003/09/15).

15

Luis De la Parra Urbaneja

Atentatuaren data: 1981/06/22.

Heriotza-data: 1981/06/24.

Adina: 63 urte.

Non jaioa: Palentzia.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Infanteriako Armadako koronela. Mutilatuen Kidegokoa zen. Irungo Bidasoa Zinemen kontabilitatea zeraman.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Donostiako Arantzazuko Erresidentzia, Irungo zinemetatik eta Lopez Irigoien kaletik hurbil zauritua izan ondoren.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua. Gertutik botatako bi tiro.

16

José Giménez Mayoral

Data: 1982/10/09.

Adina: 67 urte.

Non jaioa: Montblanc (Tarragona).

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ibilgailuen kontroleko burua Behobiako pasabidean. Guardia Zibileko kapitain erretiratua, kidego horretako buru izandakoa Irunen.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Behobiatik Irungo alde zaharreko bere etxera zihoala.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

17

Juan Manuel García Mencía

Data: 1982/12/29.

Adina: 48 urte.

Non jaioa: Gordaliza del Pino (León).

Destinoa: Irungo muga-postua. Lehenago, Trenbide Brigadakoa izandakoa.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo geltokian, Hendaiara zihoan merkantzia-tren bateko bagoiak ikuskatzen ari zela beste agente batekin.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Beste guardia zibil bat ere hil zen: Manuel López Fernández.

18

Manuel López Fernández

Data: 1982/12/29.

Adina: 22 urte.

Non jaioa: Málaga.

Destinoa: Irungo muga-postua.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo geltokian, Hendaiara zihuan merkantzia-tren bateko bagoiak ikuskatzen ari zela beste agente batekin.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Beste guardia zibil bat ere hil zen: Juan Manuel García Mencía.

19

Lorenzo Mendizabal Iturrarte

Data: 1983/10/26.

Adina: 34 urte.

Non jaioa: Pasai Donibaneko Larrabide baserria.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Harakina. Irungo Biona harategiko ardua zeraman.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo Luis Mariano kaleko bere dendan jasotako tiroen ondorioz, Irungo Gurutze Gorrian sartu eta handik lasterrera.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Hilabete batzuk lehenago, bonba-mehatxu bat jaso zuen etxean.

20

Ángel Rodríguez Sánchez

Data: 1984/05/03.

Adina: 42 urte.

Non jaioa: Villafranca de los Barros (Badajoz).

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Hiru alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Tailer mekaniko baten jabea, Pello Bixente kalean.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Buruan bi tiro zituela agertu zen Oiartzungo errepidetik gertu dagoen pista batean, Irungo Bentetan, norbaitek mekanikari-lanak egiteko deitu ondoren.

Prozedura: Bahiketa, galdeketa eta su-armaz tiro.

21

Joseph Couchot

Data: 1984/11/16.

Adina: 49 urte.

Non jaioa: Angelu (Lapurdi).

Bizilekua: Hondarribia (Gipuzkoa), baina beste etxe bat zeukan Biarritzen (Lapurdi).

Seme-alabak: Hiru alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Higiezinaren eta garraioen sektorean negozioak zituen industrialaria. "Hiru aldizkarik GALEkin lotu zuten" idatzi zuen *El Paísek* 1984/11/17an. Justizia frantsesak ustezko kontrabando-delitu batengatik erreklamatzeko egun horretako *El País* eta 1985/08/17ko *ABC*.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Eguzkia taberna-jatetxea, Irungo Behobia auzoan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

22

Mohamed Ahmed Abderramán

Data: 1984/11/23.

Adina: 33 urte.

Non jaioa: Ceuta.

Seme-alabak: Hiru seme-alaba. Emaztea haurdun zegoen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Polizia Nazionaleko bi furgoneten kontrako atentatua, erasoak jasaten ari ziren kamioi frantsesak zaintzen ari zirela Irungo ordainlekuan, A-8 Behobia-Bilbo autopistan.

Prozedura: Su-armaz eta granadaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Larri zauritu zen beste polizia bat: Carlos Mata Organero.

23

Isidoro Díez Ratón

Data: 1985/11/25.

Adina: 39 urte.

Non jaioa: Zamora.

Destinoa: Guardia Zibileko Aduanetako Zerga Zerbitzua. Bederatzi urte zeraman Gipuzkoan.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Lau seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Zainketa-lanak egiten ari zirela, Pasaiako portutik gertu dagoen taberna batetik irtetean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Biktimarekin batera zainketa-lanetan ari zen beste agenteak, Juan Corrales Pozasek, tabernan sartuta egin zien ihes tiroei.

24

Juan Pedro González Manzano

Data: 1989/09/29.

Adina: 34 urte.

Non jaioa: Molina de Segura (Murtzia).

Bizilekua: Basauri (Bizkaia).

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea.

Destinoa: Basauriko Komisariako Irrati-patruila Zerbitzua, baina aldi baterako Irungo Mugetako Talde Lokalean.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Irungo Polizia Nazionalaren Kuartelean sartzen ari zela.

Prozedura: Gidariaren jarleku azpian zegoen lapa-bonba leherrarazita.

Datu gehigarriak: ETAk bere gai hartzerakoan esan zuenez, bi egun lehenago jarri zioten bonba auto azpian, Basaurin, baina pizteko gailuak huts egin eta Irungo kuartelean sartzerakoan lehertu zen.

25

Francisco Gil Mendoza

Data: 1991/08/07.

Adina: 27 urte.

Non jaioa: Donostia (Gipuzkoa).

Bizilekua: Hendaia (Lapurdi).

Seme-alabak: Ezkongabea.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Bere anaia Alfredorekin Irungo Urdanibia plazako banku batean eserita zegoela, eskuan arma bat zeraman kaputxadun bat ikusi zuten eurengana bidean. Alfredok ihes egitea lortu zuen, baina Francisco anaiak ez.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua. Bi balak jo zuten.

26

Juan Manuel Helices Patino

Data: 1992/04/23.

Adina: 33 urte.

Non jaioa: Rota (Cádiz).

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea.

Destinoa: Polizia Nazionaleko Herritarren Segurtasunerako Brigada.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Donostiako Arantzazuko Erresidentzian, bi ordu lehenago Irunen bi susmagarrik zaurituta, kamuflatutako patruila-auto bateko poliziek identifikazioa eskatu ondoren.

Prozedura: Su-armaz jaurtitako tiro bakarra, buruan.

27

Ramón Doral Trabadelo

Data: 1996/03/04.

Adina: 36 urte.

Non jaioa: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Hiru seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Ertzaintzako Informazioko inspektore-burua, Gipuzkoako Borroka Antiterroristako Unitateko kide izandakoa. EGIko eta EAJko afiliatua, Polizia Autonomoan sartu aurretik. Ertzaintzaren lehenbiziko promoziokoa. ELAko afiliatua. Kimika Zientziak ikasitakoa.

Destinoa: Ertzaintzaren Bilboko Zerbitzu Teknikoak.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Cipriano Larrañaga kalea, Irungo bere etxetik gertu.

Prozedura: Auto azpian jarritako lapa-bonba.

28

José Luis Caso Cortines

Data: 1997/12/11.

Adina: 64 urte.

Non jaioa: Comillas (Kantabria).

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: PPko zinegotzia Errenteriako Udalean. 1982an, Euskadiko Alianza Popularren (AP) sortzaileetako bat izan zen. Pasaiaiko Luzuriaga Ontzioletako galdaragile erretiratua.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Trantxe tabernaren aurrean, Irungo Juan Arana kalean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua. Buruan tiro bat.

Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

2. **BVE**k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Martin Merquelanz Sarriegi

Data: 1978/05/24.

Adina: 48 urte.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Hiru seme eta bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Taxilaria.

Egilea: Batallón Vasco Español (BVE).

Heriotza-lekua: Taxilari lagunek aurkitu zuten gorpua, Babiloniako kanpamentu militar zaharreko barrakoi baten hondakinen artean, Oiartzunen.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Maiatzaren 29an BVEk bere gain hartu zuen, *Deia* egunkariari egindako dei batean. Bertan esan zutenez, "Martin Merkelanz taxilariak ETAko kide bati ihes egiten lagundu zion Ezquerro hil zutenean, eta horregatik hil dugu. 54 abertzale ditugu zerrenda batean, eta guztiak hilko ditugu, Merkelanz bezalaxe. Gora Espainiaren batasuna" (*El País*, 1978/05/30).

Bizitzeko
eskubidearen
urraketak

3. Segurtasun-indarrek
bizitzeko eskubidearen aurka
egindako urraketak

1

Josu Zabala Eratsun

Data: 1976/09/08.

Adina: 24 urte.

Jaioterria eta bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Delineatzailea. Lesakako Laminazioetako langilea.

Egilea: Guardia Zibila.

Heriotza-lekua: Amnistiaren aldeko manifestazio baten bukaeran, Hondarribiko festen erdian, San Pedro kalean.

Prozedura: Su-armaz bi tiro, bizkarretik.

Datu gehigarriak: Guardia zibil baten kontrako auzia ireki zen ustezko hilketa-delituagatik, baina 1977/12/01ean behin betiko artxibatu zen, urte horretako amnistia-legean oinarrituta (*El País*, 1977/12/01). Dozena bat baino gehiago izan ziren zaurituak, eta manifestari batek begia galdu zuen. Hondarribiko Udal osoak dimititu zuen hurrengo egunean. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

Bizitzeko
eskubidearen
urraketak

4. **Egiletza argitu gabe**
duten urraketak **eta**
bestelakoak

1

Clemente Del Caño Ibáñez

Data: 1977/05/13.

Adina: 36 urte.

Non jaioa: Irungo Bentak.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: A-68 Bilbo-Behobia autopistako langilea.

Egilea: Identifikatu gabeko ibilgailu batek harrapatu zuen.

Heriotza-lekua: Errenteria parean, autopistako barrikada bat kentzen ari zela, auto batek harrapatu zuen.

Datu gehigarriak: Espainiako Barne Ministerioak terrorismoaren biktima bezala errekonozitu du. Greba-eguna zen, Amnistiaren aldeko Astearen kariatara deitua. Antza denez, autopistan zeuden barrikadak kentzera behartu zuten guardia zibilek.

Erabilitako iturri eta zerrendak

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), www.argituz.org
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.avt.org
- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.covite.org
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com
- Eusko Jaurlaritza. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumentazio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritza. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. www.lbfundazioa.org
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.